

Nazioarteko sagardoak ezagutzera eman eta harremanak sendotzeko hitzordua, azaroan

Laugarren edizioa izango du Sagardo Forumak aurten, lau atalekin: sagarra eta sagardoari buruzko jardunaldi teknikoak, sagasti eta sagardotegietara bisitak, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa, eta Nazioarteko Sagardo Azoka.

URUMEA SAGARDO FORUMA

Egungo osasun egoerak eta itxiera perimetralek, ingurune hurbilera begira jarri dituzte herri-tarrak, eta baita lan munduko sektore guztiak ere. Berdin gertatu zaie sagardotegiei: oraingoz, bakarrik izango dituzte Astigarraga eta Hernaniko zein ondoz ondo herrietako bisitariak. Eusko Jaurlaritzaren neurriek ez dute besterik ahalbidetzen, une honetan.

Baina itxiera perimetralak ez dio nazioarteko begirada lausotuko sagardogintzari; ez erabat, behintzat. Eta horretarako, nazioartera begira jarraitzeko, bi urtekin behin jartzan duen zitari eutsiko dio: azaroaren bukaeran izango da Sagardo Forumaren laugarren edizioa, Sagardoaren Lurraldean.

Asmoa berbera izango da: «sagardoaren nazioartekotzean beste pauso bat eman eta gure lurraldeko sagardoaren kultura nazioartean sustatzea». Izan ere, nabarmendu dutenez, «funtzio garrantzitsua» bete du Sagardo Forumak orain arte, euskal sagardoaren kultura nazioartean kokatzeko: «sagardoaren kultura gure mugetatik harago ezagutzera emanez, eta nazioarteko sagardoak gurean ezagutaraziz, sendotu ditugu nazioarteko harremanak, eta iritsi gara osatzera Ciderlands sarea, nazioartean sagardoak ekoizten duten herrialde eta toki ezberdinekin».

Sare horren helburuak dira, hain justu, elkar ezagutza bultzatzea, elkarren artean jarduerak eta ekintzak antolatzea, edota

sagardoaren kultura nazioartean sustatzea, besteak beste. «Herrialde bakoitzak dituen xehetasunak hain ezberdinak izanda ere, sagardoa da denok lotzen gaituena», azpimarratu dute.

Lau atal ezberdin, Sagardo Forumak

Helburu hori ipar hartuta, lau atal izango ditu aurten Sagardo Forumak: sagarra eta sagardoari buruzko jardunaldi teknikoak, sagasti eta sagardotegietara bisitak, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa, eta Nazioarteko Sagardo Azoka.

Jardunaldi teknikoetan bertako zein nazioarteko adituek landuko dituzte, sagarrarekin, sagardoarekin zein sagardoaren kultura, turismo eta gastronomiarekin lotutako gaiak. Sektoreko azkeneko berrikuntzak ezagutaraziko dituzte horietan, eta kasu praktikoekin, beraien esperientziak kontatuko dituzte adituek. «Horiei esker, aukera ezin hobea izango dugu beste herrialdeetako sagardoaren mundua ezagutzeko», diote.

Hitzaldi horiek osatzeko, eta proiektu ezberdinak partehartzailei modu dinamikoan ezagutzera emateko, eguru dituzte sagastietara bisitak, hizlariak zein sektoreko adituek gidatuta. Sagardotegietako esperientziak ere eskainiko dituzte eta txangoak, bisita eta jarduerak praktikoak ere bai, «gure lurraldeak eskaintzen duen aberastasun gastronomiko eta kulturala ezagutzeko», aurreratu dute.

Eta garrantzia handia hartuko dute, aurten Sagardo Fo-



Sagardogile bat, bisitariak azalpenak ematen, duela bi urteko Nazioarteko Sagardo Azokan. Argazkia: Sagardoaren Lurraldea

rumean ere, Nazioarteko Sagardo Lehiaketak eta Nazioarteko Sagardo Azokak. Hirugarrenez egingo dute lehiaketa aurten, «aurrere bi edizioetako arrakastaren ondoren». Izan ere, 14 herrialdeetako 200 sagardo ezberdinek hartu zuten parte. Horrela, bederatzik kategoriatan sailkatuko dituzte sagardoak, lehiaketan: Euskal Herrian ekoiztutako sagardoa, sagardo natural asturiarra, sagardo tradizional frantsesa, sagardo berriak, premium sagardo apardunak, *apfelwein* (sagardoa), zaporetako sagardoa nahiz udardoa, eta izotzezko sagardoa.

Kategoria bakoitzeko onena ez ezik, lehiaketa osoko onena ere aukeratu dute, bertako zein nazioarteko epaileek: sagardoaren munduko adituak, enologoak, sagardo ekoizleak, gastronomian espezializatutako kazetariak...

Eta lehiaketara aurkeztutako sagardo guztiak, Nazioarteko Sagardo Azokan ezagutu eta

dastatzeko aukera izango dute, bai ostalariek, eta baita herri-tarrek ere. Azokan egongo dira bertako zein nazioarteko sagardogileak eta beraien produktuen berri ematearekin batera, dastatzeko eskainiko dituzte.

Jardunaldiei buruzko informazioa eta izenemateak, 'sagardoforum.eus' web orrian Hilabetetako lana daukate aurtekin oraindik, Sagardo Forumaren laugarren edizioa prestatzeko; eta oraindik zehaztu jardunaldi teknikoak zein bes-telako ekintzak. Horiek zehaztu bezala, sagardoforum.eus webgunean jarriko dituzte, eta bertan eman beharko da izena, hitzaldi, bisita eta txangoetan parte hartzeko.

Oraingoz, ikusgai daude bertan, Sagardo Forumaren hirugarren edizioako argazkiak, eta eskaini zituzten hitzaldietako informazioa eta aurkezpenak. 2019ko azaroaren 21etik 25era izan zen hirugarren edizio hori,

bereziki Orona Fundazioak Galarretan daukan eraikinean, eta Donostiako Kurusaalean.

Orduan bezala, «nazioarteko sagardoaren elkargune» bilakatu da Sagardoaren Lurraldea, aurten azaroan ere, «gure sagardoaren kultura nazioartera begira jarritz». Eta horrek, aukera eskainiko du «beste esperientzia eta ibilbide profesionalatik ikasteko, egungo sagardoaren munduaren egoera ezagutzeko, eta ideiak barneratzeko, bereziki historia, usadioa eta enoturismoaren munduan zabalpen handia duen Sagardoaren Lurraldea jomuga turistikoak erakitzeko jarraitzeko».

Egungo egoera nahiko ezberdina izango da, duela bi urte marraztu zutenaren aldean; eta Sagardo Forumak balioko du ezagutzera emateko zein modutan eta neurritan eragin duen pandemiak, herrialde bakoitzeko sagardogintzan. Euskal Herrian, behintzat, historiara eta usadioetara atzera egiteko aukera ere eman du. K

Itxas-Buru
Sagardotegia

D.O. EUSKAL SAGARDOA

Osiñaga Auzoa
20120 HERNANI
TEL. 943 556 879
www.itxasburusagardotegia.com

Gaurtik aurrera atek zabalik
Ostegunetik igandera eguerditan

oidalume zar
sagardotegia

www.oidalumezar.com

943 55 29 38